

## OÑATIKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEAN PARTE HARTZEAK SARIA DAKAR!

Irailaren 22ra bitarte **ideia-lehiaketa** martxan izango da. [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) gunean sartu eta mugikortasun iraunkorraren alde egiteko Oñatin gauzatu daitezkeen ekintza zehatzak proposatu. Ideiaren bat bidalitako herritar guztien artean **bizikleta tolesgarri bat zozketatuko da irailaren 23an!**

**Gainerako jardueretako partaideek** ere saria eskuratzeko aukera izango dute: **bizikleta gainean eroso eta seguru joateko elementuak zozketatuko dira.**

Oñatiko Tokiko Agenda 2030



OÑATI  
dabilen herria

# OÑATIKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA 2020

Oñatiko Tokiko Agenda 2030



OÑATI  
dabilen herria

Mugikortasun  
Iraunkorraren Astea  
Oñatiko Tokiko  
Agenda 2030  
programaren baitan  
kokatzen da. Izan  
ere, Garapen  
Iraunkorrerako  
Helburuen gauzatzea  
Udalarentzako  
lehentasuna da,  
modu horretan,  
pertsonek ongizatea  
eta Lurra  
planetarenganako  
errespetua  
ahalbidetuko baita.



Oñati herri txikia bada ere, batetik bestera asko mugitzen gara. Horrenbestez, joan-etorri horiek ingurumenarentzako zein oñatiarrontzako ahalik eta kalte gutxien eragin ditzaten, **mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua** egitea ezinbestekoa da. Modu horretan, **gutxiago kutsatzeaz gain, gure osasuna hobetuko dugu**. Hona hemen **Oñatiko ikasleek proposaturiko gomendioak**:

1. Eskolara edo lanera, oinez, patinetek edo bizikleta erabiliz joan. Ariketa fisikoa eginez, osasuntsu egongo gara.
2. Kotxea beharrez, garraio publikoa erabili. Ingurukoak ere haren alde egiteko animatu!
3. Ezinbestean kotxea erabili behar baduzu, ahalik eta gehien partekatzen saiatu.
4. Oinezkoak, txirrindulariak eta gainerako ibilgailuetan dabiltzanak errespetatu. Guztion arteko bizikidetza oinarrizkoa da!
5. Bidegorriak eta bide mistoak behar bezala erabili, eta seinaleak errespetatu.
6. Ibilgailu bakoitzarentzako egokituriko aparkalekuak erabili: ibilgailu bakoitza dagokion lekuan utzi!
7. Segurtasuna oinarrizkoa da, gurea zein ingurukoena: bizikletaz ibiltzeko kaskoa jarri, argia eta txirrina erabili...
8. Arriskuak saihestu bidearen ezaugarrietara egokituz.
9. Kotxea erabili behar baduzu, ahalik eta gutxien kutsatzen saiatu. Horretarako, martxa luzeak erabili, abiadura konstantea eraman, ez joan azkarregi...
10. Kotxe berri bat erostekoa bazara, aukeratzeko unean, ingurumenean ere pentsatu: kotxe guztien ez dute maila berean kutsatzen.